

FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA, ARAUTZEN DUENA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO LANGILEEK ZERBITZUA TELELANAREN BIDEZ EMATEA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu aurretik, kontsulta publiko bat egin behar da Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek zer iritzi duten honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedek eta egon litezkeen beste aukera batzuk, arauemaileak eta ez arauemaileak.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikuluan j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Gainera, 5/2018 Foru Legearen 21. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, halakoak planteatzen direnean foru legeen aurreproiektuak eta erregelamendu proiektuak prestatu aurretik.

Aipatutako araei jarraikiz, alde zuzeneko kontsulta bat abiarazi zen, honako foru dekretu honen proiektua prestatzeko: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek zerbitzua telelanaren bidez ematea arautzen duen Foru Dekretua. Kontsulta hori Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zen, honako webgunean honetan:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/procesos/consulta-previa-elaboracion-un-pdf-teletrabajo>

Aldez aurretiko kontsulta horretan, herritarrek parte hartu ahal izan dute, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztuz 15 egun balioduneko epean, 2020ko ekainaren 23tik uztailaren 15era bitarte. Aukera hori gauzatu ahal izateko, interesdunen eskura jarri zen posta elektronikoko helbide hau:

funcionpublica@navarra.es

Jendurreko epe hori igaro ondoren, esan beharra dago ez dela ekarpen edo iradokizunik jaso parte hartzeko prozesuak iraun duen bitartean. Horrenbestez, foru dekretuaren proiektua idazten hasiko dira.

Iruñean, 2020ko azaroaren 16an.

ARAUEN GARAPENERAKO ATALEKO BURUA

Sinadura jatorrizkoan dago

Isabel Vidaurre Argote